

XXVI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Jainko Jauna, barkatzen eta errukitzen
agertzen duzu batez ere zeure ahalmen handia;
isur ezazu gure gainera etengabe zeure grazia,
Zuk agindutako ondasunetara lehiatuz,
zeruko zoriona irits dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ez 18, 25-28

*Gaiztoak, egindako bekatua damu duenean,
berak bizi arazten du bere burua.*

Ezekiel Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:
«Zuek diozue: "Ez da zuzena Jaunaren jokabidea".
Entzun, bada, Israel etxe:
Nire jokabidea zuzena ez dela?
Jokabide okerra ez ote da, gero, zuena?
Zintzoa, bere zintzotasunetik okertu,
gaiztakeria egin eta hiltzen bada,
egindako gaiztakeriengatik hiltzen da.
Eta gaiztoak, egindako bekatua damu duenean,
eta legez eta zuzentasunez dabilenean,
berak bizi arazten du bere burua.
Bere bekatuak ikusita, bihotz-berritzen bada,
eta egindako gaiztakeria guztiak damu baditu,
biziko da eta ez da hilko».

ERANTZUN SALMOA: Sal 24, 4-5. 6-7. 8-9

R/. Oroi zaitetz zeure errukiaz, Jauna.

Erakutsi niri, Jauna, zure bideak,
adierazi zeure bideskak.
Eraman nazazu zeure egibidetik, eta argitu,
Zu baitzara nire Jainko salbatzaile,
Zu zaitut egun osoan neure itxaropide. R/.

Oroi zaitetz zeure errukiaz, Jauna,
oroi zeure maitasunaz, betidanik baitira.
Ez oroitu, Jauna, gaztealdiko nire hobenez,
ezta nire bekatuez;
oroi zaitetz nitaz zeure maitasunean,
Jauna, zeure ontasunean. R/.

On eta zuzen da Jauna,
horregatik erakusten die hobendunei bidea.
Apalak zuzenbidez daramazki,
erakusten die bere bidea apalei. R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 2, 1-11

Irakurgai laburragoa egin nahi bada, [] kako artean ematen den zatia utz daiteke.

*Izan itzazue zeuengan,
Kristo Jesusi dagozkion asmoak.*

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: Kristoren pozbidea eman nahi badidazue eta ni arindu, Espiritu batek berak elkartzen bagaitu eta elkarrentzat bihotz errukirik baldin badugu, emadazue poz handi hau: iraun elkarturik eta bihotzez bat, maitasun bera eta sentiera bera dituzuela. Ez egin ezer alderdikeriaz, ez handikeriaz, baizik eta apaltasunez; nork bere burua baino handiagotzat besteak edukiz; ez bakoitzak berea eginez, batak bestearena baizik.

Izan itzazue zeuengan, Kristo Jesusi dagozkion asmoak:

[Hark, Jainkoaren izaera bereko izanik,
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;
bestela baizik, bereaz hustu egin zen,
morroi izaera hartuz,
eta beste edozein bezala azalduz.
Eta gizon bezala agerturik,
apaldu egin zuen bere burua,
menpeko eginez heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion,
Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen,
zeruan, lurlean eta lurpean,
eta mihi guztiek aitortu dezaten:
Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoarem aintzarako.]

EBANJELIOA: Mt 21, 28-32

Aleluia: Jn 10, 27

R/. Aleluia.
V/. Nire ardiek aditzen dute nire mintzoa
—dio Jaunak—;
Nik ezagutzen ditut,
eta haiek ondotik datozkit. R/.

*Damutu eta joan egin zen. Zergalariak eta emagalduek
zuek baino lehenago datoz Jaungoikoaren erreinura.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien apaiz nagusiei eta herriko zaharrei: «Zuek zer deritzazue? Bi seme zituen gizon batek. Eta zaharrenari esan zion: "Seme, zoaz gaur mahastira, lanera". Hark erantzun zion: "Ez dut nahi". Baina gero damutu eta joan egin zen. Bigarrenari ere gauza bera esan zion. Eta honek "banoa, jauna" erantzun bai, baina ez zen joan. Bietatik, nor egin zuen aitaren gogoa?» «Lehenengoak», erantzun zioten.

Orduan Jesusek: «Egiaz diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago datoz Jaungoikoaren erreinura. Izan ere, etorri zen Joan zuen artera, zuzenbidea hotseginez; eta ez zenioten sinetsi; zergalariak eta emagalduek, berriz, sinetsi egin zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berritu eta ez zenioten sinetsi».

Oparigaien gainekoa

Jainko guztiz errukitsua,
atsegin dakizula gure eskaintza hau
eta berak ireki diezagula
bedeinkapen guztien iturria.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Sakramentu honek, Jauna,
gure gorputz-arimak berri ditzala,
Kristoren heriotza iragartzen dugunok
Haren nekaldian bezala
Haren biztueran ere parte izan dezagun.
Jesu Kristo.